

# Euskararen Gaitasun Agiria

## EGA

### 2001eko ekainaren 2koa A eredia

1. deitura: .....

2. deitura: .....

Izena: .....

NA zenbakia: .....

Euskaltegia: .....

#### AZTERKETAKO ARIKETEN PUNTUAZIOA ETA DENBORA BANAKETA

Ahozkoaren ulermena ariketa burutu ondoren, **2 ordu eta 20 minutu** dituzu azterketa hau egiteko. Denbora nahi duzun moduan banatu eta azterketa nahi duzun ordenan egin dezakezu baina hona, ariketen puntuazioekin batera, aztertzaileek pentsatutako denbora banaketa:

Azpiatala	Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez	Proposatutako denbora
Azterketaren formatua gainbegiratzeko	---	---	3 min.
1. IDAZLANA			
Idazlana	25	15	55 min.
Ortografia	5	1	
2. ESALDIAK BERRIDATZI	5	2,5	25 min.
3. SINONIMOAK EMAN	5	2,5	
4. IRAKURMENA	10	5	45 min.
Egindako lana gainbegiratzeko	---	---	12 min.
Guztira	50	29	2 h 20.

Idatz ezazu **garbi eta tintaz**: aztertzaileek ez dute zuzenduko irakurri ezin dena. Ariketa guztietan atera behar da gutxienerako puntuazioa azterketa gaitzeko.

## AHOZKOAREN ULERMENA I

1. *Zer dio Olanok txirrindularien gurasoei buruz?*
  - a) Gurasoen eragina ona dela, bere kasuan horrela izan ez arren.
  - b) Guraso askok pentsatzen dutela eurak hobeto aritzen zirela bizikletan.
  - c) Berak nahiago lukeela infantiletatik aurrera gurasoak ez joatea lasterketetara.
  - d) Berak nahiago izaten zuela gurasoak ez joatea lasterketetara.
  
2. *Noiz izan zuen Olanok lehenengo bizikleta berria?*
  - a) Bederatzi urterekin, lehiatzen hasi zenean.
  - b) Inoiz ere ez; bere anaia nagusiak, berriz, bai.
  - c) *Emporium* bat zen, eta aitonak erosi zion.
  - d) Aitonak erosi zionean izan omen zuen bere lagunena bezalakoa.
  
3. *Zer deskubritu zuen ziklo-krosa ikustera joan zenean?*
  - a) Txirrindularia bere burua hobetu nahian ikustea gustatzen zitzaiola.
  - b) Aldapa gogorretan ibiltzea gustatzen zitzaiola.
  - c) Bere aitari bezala, antolaketa lanean ibiltzea gustatzen zitzaiola.
  - d) Bere aitari ez zitzaiola sufritzea gustatzen, sufritzen ikustea baizik.
  
4. *Zer dio bere afizionatu garaiaari buruz?*
  - a) Bere kasuan oso gogorra izan zela, laugarren urtetik aurrera oso zaila delako hobetzea.
  - b) Lagunak bazituela, baina berak besteek baino meritu gehiago egin zuela profesioletara pasatzeko.
  - c) Bere kasuan polita izan zela, gero ongi atera zitzaiolako.
  - d) Profesioletara urtean lau txirrindulari baino pasatzen ez direnez, zaila egin zitzaiola.
  
5. *Zer dio Olanok afizionatuaren bizitzari buruz?*
  - a) Bizitza sozialetik marjinatzen dutela afizionatua.
  - b) Lagun guztiak lanean ari diren bitartean, afizionatua ongi bizi dela.
  - c) 27 urte egindakoan, nora joan ez dakitela geratzen direnean, ikasketekin jarraitzea aholkatzen dietela.
  - d) Bizitza soziala egiten badu, kirol errendimenduan nabaritu egiten dela.

*Aukera itzazu erantzun egokiak eta jar itzazu dagozkien letrak ondoko laukietan:*

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

## AHOZKOAREN ULERMENA II

6. *Toni Romingerren gregario izan zen garaian, zer hartu-eman izan zuen berarekin?*
- a) Onak, Olano sasoi hartan gustura baitzegoen Romingerren gregario lanetan.
  - b) Onak, baina Olanok ongi zekien Romingerri ziria nola sartu.
  - c) Sasoi hartan onak; T. Romingerrek oraindik ere gogoratzen du Olanorengana hurbildu eta jateko zerbait eskatzen ziola.
  - d) Onak, baina gorabehera bat baino gehiago izan zuten janaria zela eta.
7. *Indurainen ondorengo izendatu izanak eraginik izan al du Olanorengan?*
- a) Bai, eragin handia izan du, batez ere zalegoak astindu egin baitu.
  - b) Bai; batez ere zaleengan izan du eragina, baina berak ere jasan ditu ondorioak.
  - c) Eragin ona izan du; azken batean zaleek jartzen duten ilusioak lagundu baitio Tourra irabazten.
  - d) Bai, zalantzarik gabe, txirrindulariak lehendabizi zaleen helburuak bete nahi baititu.
8. *Zer jaten du normalean?*
- a) Etxean dagoenean, arrautzak patata frijituekin.
  - b) Hidratodun elikagaiak.
  - c) Gosez amorratzen badago, entsaladarik ez du jaten, oso zaila baita digeritzen.
  - d) Denetik, baina batez ere bukaeran entsaladak.
9. *Zein iritzi du Olanok dopingaren aurkako kontrolen inguruan?*
- a) Ez direla gogorregiak, eta horregatik txirrindulari asko drogatuta ibiltzen direla.
  - b) Euren gorputzaren jabe direnez, ez dagoela dopingaren aurkako kontrolik egin beharrik.
  - c) Txirrindulariek era guztietako kontrolak pasatzen dituztela; hala ere, susmagarritzat dauzkate beti.
  - d) Beste kirolean txirrindularitzan baino inportanteagoa dela kontrolak egitea.
10. *Zer komentatzen du tropeleko jendeari buruz?*
- a) Jendearen jatorria harremanetan jartzeko moduan baino ez dela nabaritzen.
  - b) Italiarrek pasta jan nahi izaten dutela egunero.
  - c) Andaluziar batzuk oso irekiak direla; beste batzuk, berriz, isilagoak.
  - d) Amerikarrak eta italiarrak izan ezik, beste guztiak ez direla ezberdinak.


Aukera itzazu erantzun egokiak eta jar itzazu dagozkien letrak ondoko laukietan:

6	7	8	9	10
---	---	---	---	----

## 1. IDAZLANA


1. *Argi idatzi behar da, eta albait garbien.*
2. *Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
3. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
  - a) *gaiaren eraketa eta garapena;*
  - b) *hizkuntzazko aberastasuna eta zehaztasuna;*
  - c) *zuzentasuna.*
4. *Lehen orrialde hau gidoia egiteko, apunteak biltzeko... erabil dezakezu. Ez da zuzenduko.*
5. *Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko laguntza moduan dossier bana eta puntu batzuk (galderak, gogoetak, iritziak...) ere badituzu. Ez dira nahitaez kontuan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdi batzuetan oinarriturik egin dezakezu.*

## ZIRRIBORROETARAKO ORRIA



**Gizarte honek ez du itxura txarra barkatzen**  
(Soziologo baten hitzak)

**Edertasunaren gaur egungo eredua oso zorrotza da: argala, gorputz landua eta polita .**



GIMNASIO OLYMPIA

*“Gimnasioa, krema, era askotako produktu bereziak... Gorputza lantzea eta zaintzea obsesio bihurtu da niretzat.”*

*Gorputz perfektua! Txorakeria galanta!  
Horrek zeozertarako balioko balu!*



LA PERLA gimnasioaren iragarkitik

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Edertasun ereduak ziklikoak eta kulturaren araberakoak?
- Gorputz perfektua: gure gizarteak inposatutako tirania?
- Gorputz perfektua lortzeko obsesioaren atzean zer helburu daude?
- Eredu estetikoak eta horren inguruko merkatua.
- Gorputzarekiko obsesioa: herri aurreratuen kezka?

Hondakin toxikoek  
eragindako osasun  
arriskuak: ganadua  
gizentzeko  
hormonak, behi  
eroak...




Iturria: EUIHUKAR, 2001eko urtarila

Labeldun  
produktuak  
kalitatearen  
adierazle.

*Erresuma Batuan duela  
zortzi bat urte azaldu zen  
behi eroen gaitza.*



Behi eroak  
gaurko produkzio  
ereduaren ondorio  
dira.



*Janarien industrializazioak  
dena erosoago: tetrabrikeko  
zukuia naturalaren ordeez.*



Iturria: EROSKI 2000

*Genetikoki eraldatutako  
organismoek, hau da,  
transgenikoek,  
eztabaida piztu dute  
munduan.*

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Gure jateko ohiturak eta gure aitona-amonena.
- Seguruak eta osasuntsuak al dira jaten ditugun elikagaiak?
- Zer dela eta agertu dira kutsatutako jakiak elikadura katean?
- Gero eta elikagai ekologiko gehiago: barazkiak, frutak, esnea, lekariak...
- Kontsumo gizarteak jaki aukera bikaina eskaintzen digu.
- Eskolak egin ote lezake zerbait gure gaztetxoena ohiturak hobetzeko?







## 2. ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatzi behar da horri lotuta. Adibidez:

...takoan                      *etorri*takoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina **beti ere esaldi bakar bat osatuz**. Adibidea:

0. Hasieran errua berari egotzi nion. Horrek lotsa eman zidan gero.

*Hasieran bera errudun..tzat ... jo izanak ..... lotsatu ... egin ninduen gero .. .*

1. Garaiz hel dadila ama, bestela ume hau negarrez lehertuko da!

..... ahal .....  
..... !

2. Entzun eta ikasi nahi zuenak bazuen gure eskola hartan entzutekorik eta ikastekorik.

.....  
..... zer ..... zer ..... •

3. Ikaragarritzko poza hartu nuen nire laguna alkate izendatu zutela jakin nuenean.

Hura .....  
..... !

4. Nik neuk ez dut sekula ikusi, baina gure aitonak dioenez behin baino gehiagotan egin du elurra irailean.

..... arren .....  
..... •

5. Gaurko umeak bizi ote daitezke telebista barik?

..... ..rik?

6. Estimatuko nizueke hitz politen ordeztu laguntza apur bat ematea.

.....  
..... emango ..... •

7. Hirien itxura aldatuz joan da, gizartearen beharrak aldatuz joan diren heinean.

..... ahala .....  
..... •

8. Moneta berria dela eta, Administrazioak ikastaro bereziak prestatuko ditu herri-  
tarrok erabileraz jabetzeko.

.....  
..... jabe .....

9. Behi eroen arazoari buruz mintzatzeraz datorkigunak arretera pixka bat merezi du gure  
aldetik.

.....  
..... zor .....

10. "Zer egin dezaket nik zuen alde?". Galdetu zuen misiolariak.

Haien .....

### 3. SINONIMOAK EMAN

*Ondoko esaldietan markatuta dauden hitzen sinonimo egoki bana jarri behar  
duzu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz. Sinonimo  
bat baino gehiago eman ez gero, denek izan behar dute zuzenak.*

1. Ez neukan ezetz esateko edo alde egiteko **adorerik** .....
2. Bat-batean, lautadako lurralde **idorrak** ..... agertu ziren  
bidaiarien begien aurrean.
3. Atsoaren begietan distira gorri bat **nabaritu** ..... nuen.
4. Pikuak gozoak izaten ziren Kattalinen etxe **gibelean** .....
5. Apaiza etorri zitzaidan, nik **aditzen** ..... ez nituen errezo arraro  
batzuk egitera.
6. **Etekina** ..... gutxi batzuen eskuetan geratzen da beti.
7. Maisu **betekizunetatik** ..... kanpo ez zuen deus ere egiten.
8. Neskatile **ernea** ..... erraz jabetu zen hango egoeraz.
9. **Ildo** ..... beretik jarraitu zuten hitz egiten gainontzeko  
partaideek.
10. Ez zegoen seme hura, inondik ere, gurasoen **apeta** .....  
betetzeko prest.

#### 4. IRAKURMENA

*Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; kalifikazioa erantzun zuzenena izango da.*

#### BERTSOLARITZA AZKEN 20 URTEETAN

**T**aberna jendez gainezka, bertsolarien jardunari adi. Ez oso aspaldi ere, orain berrogei bat urte inguru. Bertsolariak berez sortzen ziren garaiak ziren. Etxetik, ingurutik jasotzen zen bertsolaritza, plazan teknika ikasi eta bertan bertsolari egin. Ordurako jakina zen, ordea, ingurune horiek murrizten zetoze, galtzen zetoze leku askotatik, bertsolari berriek laguntza behar zutelako, aukerak eta plazak behar zituztelako. Jaialdiak justifikatzeko omenaldiak antolatzen ziren eta horrela baimenak errazago lortu. Bertsolariak garai horretan, gainera, bazuen aukera eta onarpen bat ere halako diskurtso euskaltzale-abertzale bateragarri bat egiteko, gainerako alorretan baimenik ez eta hor, bere zailtasunekin baina egin zitekeena, edo egiten zena behintzat, zigorrak zigor. Diskurtso ofizialarekiko desobedientzia modu bat ere bazen hura eta jende askok onartua. Jaialdi eta txapelketetako jendearen erantzuna arrakastaren adierazle.

Mugimendu horrek guztiak eraginik edo eta baita bertsolaritza geroa ziurtatu nahirik, bertsoa irakasten hasi zen 80ko hamarkadan: bertso eskolak antolatu, bertso eskoletan irakatsi, hasieran ahal zen bezala eta gerora arautuago, antolatuago, egokiago. Helburua bertsoaren berri ematea zen, bertsolariak sortzeko lurra landu eta hazia ereitea, eta bide batez bertso zaleak egitea eta prestatzea. Nire ustetan, bertsolaritza osagarri diren gai jartze eta epaitze lanetarako jendea prestatzearen zeregina da oraindik arautu gabe dagoena. Bertsolaritza egituraren eginkizun garrantzitsu izan behar badute, hori ere antolatu egin beharko da.

84-85 urteetatik aurrera hasten den mugimenduaren helburu nagusia bertsolaritza fenomenoaren protagonisten antolatzearen helburua hartzen du. Txapelketak lehenik, herrialdeetako elkarteak ondoren, bertso eskolak, dokumentazio bilketa, bertsoaren dibulgazioa, komunikabideak: telebista, irrati, prentsa idatzi..., jaialdi antolaketa eta baita erdal munduarekiko harremanak ere landu nahi dira Bertsozale Elkartearen bidez. Beraz, inoiz izan den proiekturik serioenean sarturik gaude eta autonomo izateko bide horretan urrats garrantzitsuak ematen, bai instituzioek bete behar lituzketen esparruak izendatzerakoan eta baita mugimenduak berak bere eraginetik sortu behar duena zehazterakoan. Azken hamabost urteotan urrats sendoak eman direlakoan nago. Ez da, ordea, dena antolatua izan behar, herritar bertsozale eta antolatzaileek ere behar dute bere erara funtzionatzeko lekua. Nola lortu oreka hori? Bideak erakutsi beharko du.

Gaur eguneko kezketako bat da plazetan jendea urrituz doala. Zergatik ote da hori? Bertsolariak ezker abertzalekoak direlako? Bertso zaletasuna urrituz doalako? Formula zaharkitu egin delako? Jaialdi gehiegi egin eta jendea aseta dagoelako? Komunikabideetan presentzia handiegia duelako bertsolaritzak?

Entzuten diren argudio eta galderetako batzuk dira hauek. Nonbaitetik hastekotan, bertsoa modan izan zenean modu xebearean eta baldintza barregarri xamarretan saio gehiegitxo antolatu zen, bertsoak dirua ematen zien antolatzaileei eta. Bertsolaria ez da

horrelako baldintzetan antolatzaileari aurre egin zale. Baina olatuak bezala modak ere gorakoak eta beherakoak izaten ditu eta bertsozaleak ugaritu badira ere moda garaian hurbildutako guztiak ez dira oso bertso zaleak izaten.

Bestalde, garai batean ideologikoki bertsolarien diskurtsoan egon zitekeen sintoniak ez du halako batasunik, pluralagoa da eta horrek zaildu egiten du bertsolariaren jardunaren arrakasta. 84-85eko belaunaldian bertsoaren inguruan abiatu zen trenean ez ziren guztiak sartu. Ordura arte bertsolaritzaren gurdiaren itzain izan zirenak kanpoan gelditu ziren eta hauek ideologi kutsua eman nahi izan zioten hausturari eta era horretako diskurtso ugari izan da. Zenbait kargudunek Elkarteari, instituzioetatik, joera politiko baten pareko tratua eman diote, Txapelketa Nagusietako finaletan kargudunek saria ematerakoan jasotako txistu hotsetan justifikatuz. Eta nago ideologia bateko bertsozalea hoztu egin dela proiektu honekin, proiektu honetan dabilzan bertsolariekin, eta azken finean bertsolaritzarekin.

Bertsolarien artean gehienak ezker abertzalekoak izatea, ez dut hori frogatzeko daturik, baina zabaldurik dagoen ustea da; horrela izanda ere, bertso saioetan joera politiko jakin batzuk nagusitzeak ez du esan nahi proiektua bera joera politiko hori indartzeko asmatua denik, gaur egun zenbait politikoren artean zabalduegi dagoen arrazoitzeko eskemarekin aritu behar ez badugu. Agian, izan liteke gizartean zenbait joera politikok ez izatea beste batzuek duten erraztasunik beste erabakigune batzuetan egoteko. Proiektuak denei irekitzen dizkie ateak, baina horretan ere badu zeregina Elkartek, hoztuta dabilzan horiei sinestarazten denentzat dela, azken batean bertsoaren eta bertsolaritzaren proiektua baita.

Komunikabideetan presentzia gehiegi izatearen arrazoia askotan entzun dut baina inoiz ez sinestu. Egia izan daitekeena da komunikabideek behar bezala ez lantzea, baina leku emateak onura ekarri behar dio berez. Formula egokiak bilatu egin behar dira eta horretarako formula desberdinak landu, zer lortu nahi den jakinda.

Jaialdietako formula zaharkituarena izan daiteke egia agian, baina jaialdiak saltzen asmatu beharra ere ez da gutxiago. Oraindik jaialdia egoki saltzen bada, jendea biltzen da, bertsolaria animatzen da eta jendeak ongi pasatzen du. Burua nekatu beharra dago bai antolatzaile eta baita bertsolarien aldetik ere, hauek ere protagonismoa ezin baitute jaialdi hutsera mugatu; agian, beraiek proposatu beharko lituzkete formula berritzaileak. Azken batean gauza beretsua egiteko jantzi berriak asmatzea baino ez da. Erraza dirudi, baina ez da hain erraza. Kontuan izan beharrekoa da, ordea.

Etorkizuna orain daramagun bidetik imajinatzen dut nik, proiektu honetan ahal den bertsolari eta bertsozale gehien inplikatur, protagonista izanik bakoitza bere ahalean, batzuk bertsoetan, besteak irakasten, antolatzen, komunikabideetan, Elkartearen zereginetan... Bertsolari batek baino gehiagok Elkarteari eskatzen Elkartearen proiektuetan bustitzeko urratsa ematera pasatu behar du. Hau izan liteke Euskal Herriari alor honetatik egin diezaiokegun aportaziorik aberatsena. Gure herriaren partaide, euskararen bizigarri eta bizitzaren edergarri izanez.

Laxaro Azkune. Gai jartzailea.  
LARRUN aldizkaria. (Moldatua).  
ARGIA, 1.785 zenb.

*Ondoko hamar galderetan, aukera ezazu bakoitzean erantzunik egokiena eta dagokion letra koadro honetan ipini.*

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

1. *Orain dela 40 bat urte inguru...*
  - a) bertsolariek ez zeukaten non ikasi.
  - b) jaiotzako dohaina ez zen beharrezkoa bertsolari izateko.
  - c) bertsolaritza bertsogintzara mugatzen zen.
  - d) bertsogintzaz gain bazegoen bertsolaritza lantzeko bestelako ekintzarik.
  
2. *Bertsolarien diskurtsoari dagokionez, zer gertatzen zen garai batean?*
  - a) Bertsolariek, gainontzekoek ez bezala, baimena zeukaten edozein gai politiko erabiltzeko.
  - b) Bertsolaritzan onartu egiten ziren, nolabait, beste alor batzuetan debekatutako diskurtsoak.
  - c) Bertsolaritza desobedientzia modu bat zen, zigorrik gabekoa.
  - d) Jaialdietako jendearen erantzun txarra oso adierazgarria zen; izan ere, bertsolarien diskurtsoak ez zuten arrakastarik lortzen.
  
3. *Zein da bertso eskolen helburua?*
  - a) Bertsoak taxutzeko arauak ezartzea.
  - b) Oso ximplea: bertsolari berriak sortzea baino ez.
  - c) Bertsolaritzaren osagarri diren epaileen eta gai jartzaileen prestaketa bakarrik.
  - d) Bertsoaren inguruko esparru zabala jorratzea.
  
4. *Bertsozale Elkartearen sorrerak...*
  - a) erabat autonomo bihurtu zuen bertsolaritzaren fenomeno.
  - b) bertsolaritza antolatzeke eta kudeatzeko moduan aldaketa nabarmena ekarri zuen.
  - c) ordura arteko protagonismoa kendu zien bertsolariei.
  - d) berrikuntza galantak ekarri zizkien bai txapelketei bai plazaz plazako jardunei.
  
5. *Garai batekoarekin alderatuta, zer da plazetan gaur egun urrituz doana?*
  - a) Entzuleak.
  - b) Bertso saioak.
  - c) Bertsolariak.
  - d) Bertso zaletasuna.

6. *Ideologiari dagokionez, zera esan daiteke:*

- a) Gaur egungo bertsolaritza anitzagoa da diskurtsoaren ideologiaren aldetik.
- b) Elkarteko partaide izateko ideologia jakin batekoa izan behar da.
- c) Ideologia jakin batekoak ezin dira Elkarteko partaide izan.
- d) Garai batean ez bezala, gaur egun batasuna ageri da diskurtsoaren ideologian.

7. *Laxaro Azkunereren esanetan,...*

- a) bertso saioek jardunaldi politikoak ezkututzen dituzte.
- b) bertsolaritzaren egitasmoa joera politikoen gainetik dago.
- c) bertso saioek ez diete zenbait politikoren eskemei jarraitzen.
- d) frogatzerik ez badu ere, berak ez du uste bertsolari gehienak ezker abertzalekoak direnik.

8. *Artikulugilearen ustez,...*

- a) komunikabideek kalte baino ez diote egin bertsolaritzari.
- b) komunikabideek ez dute asmatu bertsolaritza behar bezala lantzen.
- c) bertsolaritzak komunikabideetan presentzia izatea ez da kaltegarria.
- d) ez dago formula egokirik bilatzerik bertsolaritza lantzeko.

9. *Testuan esaten denaren arabera,...*

- a) ez dago zalantzarik jaialdien formula zaharkituta geratu dela.
- b) jaialdiak ez dira ondo saltzen jendea animatuta ez dagoelako.
- c) antolatzaileen arteko elkarlana ezinbestekoa da jaialdiak saltzeko.
- d) agian, bertsolariek ere eraberritu beharko lukete euren langintza.

10. *Etorkizunari begira, zer pentsatzen du egileak?*

- a) Ezkor azaltzen da.
- b) Bertsolaritzaren egitasmoari funtsik gabea irizten dio.
- c) Hainbat arlotan egindako lanek bertsolaritzaren proiektuaren alde bat egingo dutela aurreikusten du.
- d) Elkarlearen lanetan gero eta bertsozale gutxiago izango dela uste du.

## AZTERTZAILEAK ERABILTZEKO

			Erreferentzia	Azterketa honetan lorturikoa
AHOZKOAREN ULERMENA: guztira			5	<input type="text"/>
IDAZLANA BERA	Edukia *	0-7	25	<input type="text"/>
	Moldea *	0-8		
	Zuzentasuna *	0-10		
ORTOGRAFIA			5	<input type="text"/>
ESALDIAK BERRIDATZI			5	<input type="text"/>
SINONIMOAK			5	<input type="text"/>
IRAKURMENA			10	<input type="text"/>

\* Adierazi gurutze edo zenbaki batez zein alderdi ez duen gainditu.

### Kalifikatzeko irizpideak

*Aztertzaileentzako jardunbidea* liburuko azalpenen eta oharren sintesia.

#### IDAZLANA

**EDUKIA (0-7) puntu.** Honetan adierazia kalifikatuko da, hots, garatzeko eskainitako gaia zein neurritan osatu den:

- Gaiarekin lotura duten / ez duten alderdien garapena.
- Argudio eta adibide asko / gutxi.
- Gutxieneko hitz kopurua.

**MOLDEA (0-8) puntu.** Adierazpena kalifikatuko da, hots, edukia azaltzeko moldearen kalitatea:

- Egitura aberatsak / sinpleak.
- Lexiko zehatza eta adierazkorra / desegokia edo urria.
- Ideien eta egituren arteko kohesioa, lotura.
- Idazlanaren egituraketa orokorra, paragrafoen antolamendua.

**ZUZENTASUNA (0-10) puntu.** Hizkuntz akats nabarmenen arabera kalifikazioa, hots, joskerazko zuzentasuna:

- Deklinabidean: kasu atzizkiak zuzen / oker erabiltzea.
- Aditz mailakoa.
- Esaldien egituraketa.

Hiru alderdi horietakoren batean nabarmenki huts eginez gero edota, oro har, hiruretan maila kaxkara erakutsiz gero, ezingo da *Idazlana* gaindituzat eman.

#### ORTOGRAFIA

5	Oso zuzena
3-4	Akats ez oso larriak
1-2	Akats larri batzuk
0,1-1	Oinarritzakoak edo akats larri ugari

#### ESALDIAK BERRIDATZI

Berridatzi den esaldiak honako baldintzak bete behar ditu zuzentzat eman ahal izateko:

- Esaldi bakarra atera behar da berridazketaren ondorioz.
- Eredutzat ematen den esaldiaren zentzua osorik jaso behar du.
- Eskaintzen den "bidea"ri jarraituz osatua izan behar du, eta ez beste bide batetik eratua.
- Gramatikaren aldetik zuzena izan behar du, osorik.
- Komatxoak-edo erabili badira, horiek adierazten duten elementuen ordenak eta puntuazioak ere zuzenak izan behar dute.
- Ortografia zuzena izan behar du.

#### SINONIMOAK

Ontzat hartu ahal izateko:

- Testuingurua kontuan hartuta, egokia izatea.
- Bat baino gehiago jarritz gero, denek izan behar dute zuzenak.
- Atzizkiduna bada, atzizki eta guzti emana.

# **EGA**

**AZTERKETA IDATZIA**

**2001eko ekainaren 2koa**

**Eredua**

**A**

---

**ENTZUTEZKO ULERMENA - TESTUA**  
**ARIKETEN GILTZAK**

## AHOZKOAREN ULERMENA I

ABRAHAM OLANO: “EZ DUT NEURE BURUA TOURREAN IKUSTEN,  
BAINA EZ DUT ETSIKO”

---

ARGIA. *Aita txirrindulari izana, anaia ere aritu da... Gurasoek zer eragin izan dute?*

ABRAHAM OLANO. Txikitan beti gurasoek laguntzen zaituzte eta leku guztietara beraiekin joaten zara, baina jada infantiletatik aurrera ez zitzaidan gustatzen gurasoekin joatea. Nire kasuan ez, baina beste batzuk ikusita banekien gurasoek zer eragin zuten haiengan. Guraso asko daude bizikletan aritu izan direnak, eta askotan lehiazera joaten zara aitaren ilusioa delako, eta ez zuri gustatzen zaizulako. Horregatik nahiago nuen gurasoak ez joatea.

ARGIA. *Noiz izan zenuen lehenbiziko bizikleta?*

A.O.: Lehenengo bizikleta ez nuen nik izan, nire anaiak izan zuen. Ni hirugarrena naiz, eta niri bizikletaren erreleboa tokatu zitzaidan jada estreinatuta zegoenean. Baina ez zitzaidan behin ere hori inporta izan. Lehiazten hasi nintzen garai hartan pasatu zidaten, bederatzi urterekin, eta anaiaren bizikletari aulkia jaitsi eta moldatzen ginen nola-hala. *Emporium* bat zen, urdina eta gurpil txikietakoa. Geroago, lehenbiziko bizikleta berria aitona erosi zidan. Berari esker izan nuen bizikleta “dezentea”, besteenen modukoa. Nire ondoko lagunak beti bizikleta onak izaten zituzten eta ez nuen ezer esaten, badakizulako zer arazo dauden etxean... Moldatzen joaten zara, urtero zerbait aldatu bizikletari... Uste dut esperientzia polita dela eta asko ikasten dela horrela.

ARGIA. *Haurra zinela ziklo-krosa ikustera ere joan omen zinen...*

A.O.: Tolosan 81ean Munduko Txapelketa izan zen eta Oriako Txirrindulari Eskolan genbiltzanez, antolatzaile lanetan aritu zen aitari laguntzera joan ginen. Aldapa gogor batean egon nintzen. Han denek oinez igo beharra zeukaten, bizikleta bizkarrean eta lau hankan. Aitak zera esan zidan, “Ikusten duzu zein gogorra den bizikletan ibiltzea?” eta nik “Hori, hori, aita, hori da niri gustatzen zaidana, sufritzen ikustea”, erantzun nion. Eta aitak erantzun: “Ikustea gauza bat da eta sufritu egin beharra beste bat!”. Pertsona bat bere burua hobetzen ikusteak bete egiten ninduen.

ARGIA. *Gero afizionatu garaia dator...*

A.O.: Oso polita izan zen, baina ongi atera zitzaidalako, eta profesioaletara pasatu nintzelako. Nik baino meritu gehiago zuten lagunak banituen, baina haiek ez zuten profesioaletara pasatzeko aukerarik izan. Bi-hiru urte bai, baina jada laugarren urtetik aurrera oso zaila izaten da beti hobetzea. Profesioaletara urtero lau ziklista pasatzen dira.

ARGIA. *Afizionatuari ez al zaio bizitza oso mugatua geratzen?*

A.O.: Bizitza soziala eginez gero, kirol errendimendua seguru jaitsi egingo dela. Orduan norberak marjizatzen du bere burua bizitza sozialetik... Lagunak lanean hasita daudela ikusten duzu, eta zu “denbora galtzen” ari zarela, ez zara ofizio bat ikasten ari... Gero 27 urterekin nora joan behar du batek, zer lan eskatzera? Aholku bakarra dugu profesional guztiok: ikasketak goizegi ez uzteko, gero gauzak ez badira ongi ateratzen helduleku gehiago izango baita.

## AHOZKOAREN ULERMENA II

ARGIA. *Toni Romingerren gregario izan zinen. Noraino betetzen zintuen berarentzat lan egiteak?*

A.O.: Nik uste dut bakoitzak bere momentuan dagokion lana egiten badu, bete egiten duela. Nik banekien Romingerri zer gustatzen zitzaion eta zer ez. Ahal banuen, ni gelditu baino lehenago bere aldamera joan eta zera esaten nion: “Aizu, ni jada nahiko justu noa eta nahi duzu zer edo zer jateko..., badaukat barra energetiko bat (berari asko gustatzen zitzaizkion)...” Ilusioa egiten zion momentu hartan hain gauza goxoa, hain preziatua ekartzeak. Norberari ez zaio burutik pasatu ere egiten, baina berarentzat detaile oso inportantea da. Oraindik ere gogoratzen da horretaz. Eta beharbada glukosa hark ez zion indar gehiago emango, baina motibatu bai: “Erreserba gehiago badut poltsikoan” pentsatuko zuen.

ARGIA. *Profesionaletan hasi orduko izendatu zintuzten komunikabideek Indurainen ondorengo. Pisu handia izan al da?*

A.O.: Bai, eragina izan du, baina nigan baino gehiago zaletuengan. Prensak Indurainen ondorengo bezala jarri nau, eta bost Tour edo bakarra irabaztea ere oso zaila da. Eta irabazlea hemengoa eta ni izatea, gainera, askoz ere zailagoa. Jende askok hartu du makilakada horregatik, eta norbera izaten da besteen helburuak bete nahi dituen lehenena, baina bakoitzak bere palmaresa egiten du. Min handia hartzen da, lehen astindua afizioak hartzen duelako eta afizioak jarri duen ilusioa azkenean norberarengana erortzen da.

ARGIA. *Zer dieta jarraitzen duzue?*

A.O.: Niretzat gutizia da etxera etorri eta arrautza batzuk patata frijituarekin jatea, txistorra puska batekin. Hori da niretzat bazkaririk onena. Baina ohikoena dietan hidratoak sartzea da: afaltzeko pasta edo arroza, eta bigarren platerean batzuetan arraina, eta besteetan haragia, eta entsalada bat hasteko. Nik normalean denboraldian zehar ez dut entsaladarik jaten, eta gosez amorratzen geratu banaiz bukaeran jaten dut, digeritzen zaila baita entsalada.

ARGIA. *Dopinga dela eta kontrol gogorrak behar dira oraindik?*

A.O.: Ez dut uste gogorregiak direnik, baina gizarte eta kirolarien aldetik hipokresia pixka bat ikusten dut. Txirrindulari guztiak drogatuta joaten omen dira, eta era guztietako kontrolak egiten ditugu urtean zehar: ustekabeak, lizentzia ateratzeko pasatu behar diren beste lau kontrolak... Eta oraindik txirrindulariak hormaren kontra jartzen dituzte. Eta beste hainbat kirol ere bada, produktuak hor daude eta beraiei ez zaie kontrolik egiten.

Geu izan ginen lehenengoak dopinga zigortzea nahi izan genuenak, geure gorputza delako, eta geure gorputzean zer sartzen den jakitea garrantzitsua delako. Baina mugak jartzea gauza bat da, eta beste bat da esatea “yonki”ak edo drogatak gabela.

ARGIA. *Leku ezberdinetako jendeari antzematen al zaio beste kultura batekoa dela?*

A.O.: Oso ezberdinak dira, batez ere amerikarrak. Gosaltzera joan eta “jar iezadazu saltxitxa bat” eskatzen dute, “gutizia daukat eta ezin dut egun bat gehiago iraun saltxitxa gosaldutik gabe”. Horrek esan nahi du bere etxean horrela gosaltzen dela! Eta italiar bati ez esan otordu batean ez diozula pasta jarriko mahaiaren gainean, ez baitu bazkalduko. Bi egunetan jarraian pastarik jaten ez badu, urduri jartzen da. Nongoa zaren asko antzematen da jendearekin harremanetan jartzeko moduan ere. Andaluziarrak oso-oso irekiak dira, pelotoiko edozeinekin hasten dira hizketan, eta beste batzuk isilagoak gara, lehenengo hitz egin behar digute gero guk zer edo zer esateko.

Estitxu Eizagirre / Ixiar Eizagirre  
ARGIA, 1.784 zenb.  
(Moldatua)

## AHOZKOAREN ULERMENA

<b>A</b> eredua	1 D	2 D	3 A	4 C	5 D
	6 A	7 B	8 B	9 C	10 B

## ESALDIAK BERRIDATZI (Erantzun-ereduak)

1. Garaiz helduko **ahal** da ama, bestela ume hau negarrez lehertuko da!
2. Entzun eta ikasi nahi zuenak bazuen gure eskola hartan **zer** entzun eta **zer** ikasi.
3. **Hura** poza hartu nuena nire laguna alkate izendatu zutela jakin nuenean!
4. Nik neuk sekula ikusi ez dudana / izan ez **arren**, gure aitona dioenez behin baino gehiagotan egin du elurra irailean.
5. Gaurko umeek ba ote daukate telebista barik **bizitzerik**?
6. Estimatu nizueke hitz politen ordez laguntza apur bat **emango** bazenidate.
7. Gizartearen beharrak aldatu **ahala** hirien itxura (ere) aldatuz joan da.
8. Moneta berria dela eta, Administrazioak ikastaro bereziak prestatuko ditu herritarrok erabileraz **jabe** gaitzen.
9. Behi eroen arazoari buruz mintzatzera datorkigunari arreta pixka bat **zor** diogu.
10. **Haien** alde zer egin zezakeen galdetu zuen misiolariak.

## SINONIMOAK (Erantzun-ereduak)

Hemen ageri ez den sinonimoren bat ontzat emateko zalantza izanez gero, jarri ohar bat neurketa-fitxan.

- |  |  |
|--|--|
| 1. <b>adorerik</b> : kemenik, indarrik...                  | 6. <b>Etekina</b> : irabazia, mozkina, hobaria...              |
| 2. <b>idorrak</b> : lehorrak, agorrak, sikuak...           | 7. <b>betekizunetatik</b> : zereginetatik, eginbeharretatik... |
| 3. <b>nabaritu</b> : antzeman, igerri, sumatu...           | 8. <b>ernea</b> : argia, azkarra, zuhurra...                   |
| 4. <b>gibelean</b> : atzean, ostean...                     | 9. <b>Ildo</b> : bide, hari...                                 |
| 5. <b>aditzen</b> : ulertzen, konprenitzen, entlegatzen... | 10. <b>apeta</b> : guraria, nahia, gogoia...                   |

## IRAKURMENA

<b>A</b> eredua	1 C	2 B	3 D	4 B	5 A
	6 A	7 B	8 C	9 D	10 C